

HERNANIK

kronika

2003 urtea
Abenduak 26
Ostirala
Alea: 973
www.kronika.net

Polizia Nazionalak Gorka Loran eta Garikoitz Arruarte hernaniarrak atxilotu eta beren etxeak miatu ditu

■ Loran Hernanin atxilotu zuten eta Arruarte Donostian ■ Acebesek leporatu die ETAko komando bat osatzea eta Madrilen atentatu bat egin nahi izana ■ Hernanin manifestazioak egin dira bien askatasuna eskatzeko.

ASTEAZKEN eguerdian atxilotu zitzuten ezkerro, Gorka Loran eta Garikoitz Arruarte hernaniarrek Polizia Nazionalaren esku segitzen dute, inkomunikatuta. Leku koen arabera, Gorka Loran Kaxkoan atxilotu zuten paisanoz jantxitako poliziek, lagunekin zijoala. Garikoitz Arruarte, berriz, Donostian atxilotu zuten, Poliziak berak zabaldutako informazioaren arabera.

Angel Acebes Barne Ministerioak bi hernaniarrei leporatu die ETAko komando legala osatzea, (Poliziak fixtatu gabea) eta Madrilgo Chamartin tren geltokian atentatu bat egin nahi izana, bi bonba trenez bidalita. Poliziak berak zabaldutako informazioaren arabera, Garikoitz Arruartek 25 kilo tita dynez osatutako bonba zera makien motxilan atxilotu zutenean, eta Madrilerarako trenean utzi behar zuen bonba. Iturri berak dionez, Poliziak beste bonba bat ere aurkitu zuen Madrilera zijoan trenean. Bere hitzetan talde berak jarritakoa zen, Madrilen Gabon arratsaldean lehertzeko prestatuta.



Asteazkenean manifestazioa egin zen Atxilotuak askatu lemarekin.

Poliziak etxeak miatu zituen, biak bertan zirela
Polizia Nazionalak asteazken arratsalde osoan aritu zen Gorka Loran eta Garikoitz Arruarteren etxeak miatzan, Kardaberaz eta Larramendi kaleetan. Itxura denez, poliziaren erregistroan Loran eta Arruarte biak egon ziren be-

ren gurasoen etxeetan.
Poliziak ezer eraman duen edo ez argitu ez bada ere, leku koen arabera, ez baten eta ez bestearen etxetik ez zuten inongo kajarik atera.

Erregistroak iraun zuen bittarrean tentsio haundiko uneak ere izan ziren Polizia operazioa salatzeko bildu ziren

herritarren artean.

Manifestazioak

Asteazkenean bertan ehundaka lagunek eskatu zuen Gorka Loran eta Garikoitz Arruarte askatzeko, eta biak epailearen aurretik pasa bittarrean egunero egingo da manifestazioa. □

Andoni Egaña eta Jokin Sorozabal gaur Hernanin, bertso afarian

■ Karobin da afaria ■ Bihar jaialdi nagusia Sandiusterrin.

BERTSOLATAREN barruan, gaur gauean bertso afaria izango da Karobi elkartean. Kantuan Andoni Egaña eta Jokin Sorozabal arituko dira. Afaritarako sarrerak Aralar, Kitto eta Aker tabernetan daude.


Bihar, berriz, Bertsolatako

jaialdi nagusia izango da Sandiusterrin. Bertsolariak: Anjel Mari Peñagarikano, Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Ibon Miner, Joxe Angel Aranburu eta Amets Arzallus.

Jaialdia arratsaldeko 19:30- etan izango da. □



Jokin Sorozabal eta Andoni Egaña gaur kantari Hernanin.



MENABI-k INSTALAZIO BERRIEN ATEAK ZABALDU DITU.

Menabi, Škoda Kontzesionario Ofizialak, erabat berritu ditu bere instalazioak eta inauguratzen dijioa. 1500 m² baino gehiago Škoda-rentzat bakar-bakarrik: auto berri eta erabilien erakusketa, tailerra, errekanbioak eta bezeroentzako aparkalekuak.

Ospatzeko, prezio bereziak gama osoan abenduaren 31 arte.



MENABI Txingurri pasealekua, 26 · Tel. 943 40 42 43 · Donostia



Jatetxea
Ondo pasa
eguberri jaiak!
Venta Berri



Arano - Nafarroa
(948) 51 40 18
Larunbatetan itxia



OKINDEGI TA GOZOTEGIA



Eguneroko ogia
beti bikain

Eziago poligonoa - Tel.: 943 550089
Elkano 12 - Tel.: 943 553142
Orkolaga 19 - Tel.: 943 331487
20120 Hernani



GARAJE ITXIA SALGAI

25m². Izpizua Kalea 19.

Prezia, 29.000 euro.

Interesatuak deitu:

☎ 943-551026



Oalentzero umeei erregalaiak banatzen asteazkenean Biterin. Umek gustora hartu zitzuten.

Oalentzerok Biterin banatu zituen opariak

HERNANIARREK ez zuten hutsik egin Eguberri bezperan Oalentzerorekin zuten zitara. Urtero bezala harrera egiten aurrenekoak ikastoletako haur eta irakasleak izan ziren. Nahiz eta eguraldi euritsua egin kale buelta egin zuten ikazkinari

ongietorria emateko. Zenbait auzotan ere izan ziren Oalentzero eta Gabon kantak.

Arratsaldean, Polizia Nazionala Kaxkoan zegoenez, Ttarla eta San Juan konpartsaren Oalentzeroa Biterin egin zuten (berez, Kardaberaz kalean behera joa-

ten da) eta areto nagusia bete ume bildu zen Oalentzerori karta emateko. Kantuz Abesbatza eta Hernani Musika ere ibili ziren Eguberri bezpera giroten. Doberako taldeak urteroko buelta egin zuen, Zikuñaga eta Osiñagatik barrena. □



Ezkerrean ikasleak Gabon kantuak abeste eta eskubian Ttarla taldearen emanaldia.

Etxeberri
Taberna
Eguberri zoriontsuak izan ditzazuela, opa dizuegu.
Etxeberri 2.blokea - 943 551267
Egunero menuak, Asteburuan:
Bazkariak eta afariak.

TITAN-ETXE
TABERNA
EGUNEKO MENUAK
Larramendi 15 - Tel.: 943 55 00 46
Hernani
ADARRAGA
Konfitegia
Pasteldegia
Urbieta Etorbidea 7
☎ 943 55 09 10
Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu.

ADARRA
ETXE TRESNAK S.A.
Txirrita kalea 11
Tel. 943 55 04 27
20120 HERNANI (Gipuzkoa)

HERNANI (Gipuzkoa)


ZORIONAK
laket
Kardaberaz, 17 • Tel.: 943 330 679
20120 HERNANI

Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu.

JTXASPE
Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobila: 653 74 10 97
20120 Hernani

URGASKA, S.L.
Gas instalakuntza
Material salmenta
K21
* Asistentzia teknikoa,
gas eta berogintzan.
* Gas propano, butano
eta naturala: mantenua
* Iturgintza
Aristizabal 9 Behea
Tel.: 943 33 37 40

JASOTA BEZALA

Dagokion horri:

Ondorengo leroetan, Hernaniko Udal Haur Eskolako langileok, abenduaren 16an Hernaniko AFEDEN gertatutakoagatik guare haserrea adierazi nahi diogu.

Langile batzuk geletarako jostailuak erostra joan ginan 1.000 euroko aurrekontuarekin. Bost karro bete, kaxara zuzendu, eta dirutan ez genuela ordainduko, faktura udaletxera bidali behar zutela, esan genuenear sortu zen "istilua".

Hainbat aitzakia jarri zizkigutengi: ordenagailuan ez ginela agertzen, gertatu zaiela partikularak joan eta beraien erosketa lantokikoa balitz bezala ordaintzea, beraiek nola jakin guadelekko langileak ginela...

Honen aurrian, udal haur eskolako zuzendaria idatziz agiri

bat egiteko prest agertu zen bere ardurreapean erosketa jaso ahal izateko. Baita ere nortasun agiria bertan utzi, eta hurrengo egunean udaletxetik nahi zitzuten agiri guztiek eramateko nortasun agiriaren bila joatean. Ahalegin guztiek alferrikakoak izan ziren. Gertaera hau dela eta azpimarratu nahi duguna zera da: 20 urte inguru daramatzagula AFEDEN gabonetako erosketa hauek egiten, gure irizpideetako bat ahal dena herrian bertan erostea baita.

Azken 2 edo 3 urtetan antzeko jarrera jaso izan dugunez, aurten go erosketa bertan utzi eta beste nonbait erostea erabaki genuen, ez baikaude prest horrelako trauta jasateko.

Gurutze Amigorena Mujika (zuzendaria) □

ZACARIAS - MONICA

Seme-alaba eta biliobek
Urrezko Ezta
zoriontsuak opa
dizkizuegu

Zorionak!

1953-12-26
2003-12-26



IRAGARKI MERKEAK

Pixua alokatzen da Sorgintxulo auzoan. Interesatuek deitu: 943 55 19 56 (Arrasaldeko 20:00etatik aurrera deitu).

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

FARMAZIAK

- Egunez: Correa
Perkaiztegi 8
☎ 943 551933
- Gaez: Urbistondo
Lasarte. San Francisco 1B
☎ 943 366567



HERNANIK
kronika
2004ko
egutegia salgai

2 euro

Dobera eta Hernaniko Kronikan.
Zinko Enea, Konde eta Plaza Berri
kioskoetan.

Sebas eta Iruretagoienan.
Dorronsoro, Bikain eta
Antziola okindiegietan.

Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu eta urte berri on!

HERNANI
BIDAIAK

hernanib@teleline.es
Urbieta, 6 - 20120 HERNANI

943 33 00 49 / 943 33 01 74